

Udal talde politikoaren iritzia



2023ko ILUSIOA ETA ERREALITATEAK

Urte berria, 2023. urtea, ilusio handiz hasi dugu; izan ere, nabariak diren eta herritarren zerbitzura dauden errealitate gisa aurkeztu ditzakegu Getxoko Eusko Alderdi Jeltzaleak dituen konpromisoak.

2023. urtean, 120 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuarekin, Amaia Agirre Muñoa alkatea buru duen Getxoko udal-gobernua edozein egoerari aurre egiteko prest dago, betiere gizarte-izaera argiarekin, pertsonak —getxoxtarrek— gure politiken eta proiektuen erdigunean egoten jarraitu daitezten. Gauzak horrela, 2023ko aurrekontua 120 milioi euro baino gehiagokoa da, eta giza garapen jasagarria jarriko da erdigunean, betiere gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-agenden arteko orekan oinarrituta.

2023. urtean, beraz, Getxo udalerriko gobernua eta EAJ-PNV taldea osatzen dugunok aurrera egiten eta gure herrikideekin hartu ditugun konpromisoak betetzen jarraituko dugu: etorkizuneko belaunaldien-



tzat Getxo hobea izatea bermatzen duen HAPO berria onestea; Areetako geltokiko plaza berria amaitzea, herritarrek gozatu dezaten; mu-

gikortasun jasagarriaren aldeko apustu irmo eta argia, bidegorrien sarearen eta TAO Express zerbitzua- ren bitartez; Etxebizitza Plan berria

(2020-2035) aurkeztea, askotariko beharriari erantzuteko eta betiere gizarte-alokairua oinarri hartuta; Gizarte Zerbitzuen etengabeko lana, berdintasunean, aniztasunean eta zahartze aktiboan arreta berezia jarri; eta ume eta gazteentzako espazioak hobetzeko proiektuak gauzatea: Areneko parke estali berria eta Algortako Gaztelekua.

Mundu osoan gertatutako osasun-pandemiak Getxon ere izan zuen eragina eta, ondorioz, aparteko esfortzuak egin behar izan zituen udalak; hala eta guztiz ere, Getxoko Eusko Alderdi Jeltzaleak duela lau urte hartutako konpromisoak bete egingo dira. Burua altxatuta eta zereginak beteta izanik erantzun ahaliko diegu getxoxtarrei. Oso gutxi izango dira amaitu barik geratuko diren ekintzak, eta are gutxiago garatuko ez direnak. Izan ere, aurten 128. urteurrena ospatuko duen alderdiko katebegiak gara eta hizpide ditugun konpromisoak EAJ-PNV alderdiak herritarrei emandako hitza direla ulertzen ditugu.



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON



PPko kideon partez, Gabon zoriontsuak izan eta ondo hasi urte berria. Urte latzak izan ditugu eta mundu-pandemia egon da tartean, zeina bereziki suspertzen ari ginenean agertu baitzen; hortaz, krisiak jo gaitu berriz ere, inoizko prezio-igoerarik handienarekin eta izugarriko inflazioarekin. Herritarrak txarto pasatzen ari dira: familiak eta auzoko saltokiak ikaragarriko esfortzuak egiten da-

biltza hilaren amaierara iristeko, eta gure lanak ildo berari jarraituko dio beti: familiak laguntzea eta opor-tasuna sortzea herrian. Gogorazi nahi dizuegu zuon esanetara gaudela Zugatzarten dugun egoitzan, eta WhatsApp bidez ere jarri zaitezke harremanetan, 650871289 telefono-zenbakiaren bitartez. Gure desiorik onenak 2023. urterako; urte izugarria izango da. #EsnatuGetxo



HAPO HONI ALEGAZIOAK: BESTELAKO HERRI EREDUA POSIBLE DA

HAPO batek herri bat irudikatzen du; herritarren arteko elkarbizitza, mugikortasun eredu, harremantzeko modua... Tamalez, Udal Gobernuaren HAPOk espekulazioaren legeei jarraitzen die eta ez die herritarren beharrei eta Getxon ditugun arazoei (gazteen exodoa, naturguneen defizita, ondarearen galera...) erantzuten.

Hori dela eta, EH Bildutik helegiteak aurkeztu ditugu, honako ekarpen hauek eginez: informaziorako eta helegiteak aurkezteko epea luzatzea; Mimenagako hezegunea babestea; Portu Zaharreko landa babestea eta Portu Zaharrean pisu turistikoak debekatzea; auzoen erdiguneak oinezkoentzako izatea eta metroa lurperatzea; hiri mugikortasun iraun-

korreko plana eguneratzea, HAPON barneratzea eta bidegorri sare eraginkorra osatzea; herriaren ondarearen katalogoa handitzea Eusko Jaur-laritzaren irizpideak aintzat hartuta; Martiturrin proposatutako enpresa parkea erdigunean eta auzo bizitzan uztartzea; etxebizitza hutsen azterketa eguneratzea eta etxebizitza hutsak mugiaraztea; alokairuko babes ofizialeko etxebizitza gehiago sustatzea, ez bakarrik legeak ezartzen dituen minimoak; eta sektore urbanizagarriak ez-urbanizagarri bihurtzea. Oso garrantzitsua da guztiok batera HAPO hau gelditzeko pausuak ematea. Espekulazioari eta interes ekonomikoei begirako politiken aurrean, bestelako herri eredu posible delako, HAPO HONI EZ!



EMAKUME GUZTIEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Getxoko emakume batek salaketa bat jarri du **sexu-erasoagatiko delitu bategatik**; eraso urtarilaren lehen gertatu zen, udalerriko etxebizitza batean, eta ustezko erasotzailea atxilotu dute. Horren harira, PSE-EE alderdiko kideok **adierazi nahi dugu erabat gaitzesten ditugula egitate horiek eta, bide batez, gure babes osoa helarazi nahi diegu eraso jasan zuen emakumeari**. Udaleko Berdintasun Zerbitzua kudeaketan, **egunero egiten dugu lan berdintasunean eta errespetuan oinarritutako gizarte lortzearen**, emakumeek erabaki dezaten nola eta norekin partekatuta nahi duten euren

bizitza eta **une oro errespetatu dadin beren nahia**. Lan asko dugu egiteko. Abenduan, hamaika emakume erail zituzten Espainian; hortaz, **hemertzi urtetan heriotza gehien izan zuten hirugarren hilabetea izan zen, eta 2022ko tragikoena**. Guztira, 49 emakume erail zituzten iaz indarkeria matxistagatik eta, ondorioz, **38 adingabe umezurtz geratu dira**. Are gehiago, aurreko asteburua bakarrik aintzat hartuta, hiru erailketa egon ziren. Egitate horiek direla eta, esan behar dugu aski dela. Izan ere, **berdintasuna askatasunaren funtsa da, eta genero-berdintasuna EGIAZ-KOA izan behar da**.



ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE

Urtea hasteko, Getxon gertatu den zoritxarreko sexu-eraso baten albiste izan dugu. Bat egin dugu gertatutakoa gaitzesteko adierazpen instituzionalarekin, eta gertatutakoa salatze elkarretaratzeetara bertaratu gara. Elkarrekin taldeko kideok berriz ere adierazi nahi dugu **emakumeen aurkako indarkeria oro erabat gaitzesten dugula** eta nabarmendu nahi dugu politika ausartak eta era-

ginkorrak behar ditugula halakorik gertatu ez dadin; halaber, protokoloak berrikusi behar dira erantzun irmoa eta koordinatua emateko kolektibo feministei. Hilketak matxista ugari egon dira herrialdean Gabon hauetan eta, beraz, 2023. urtea mezu hau helaraziz hasi nahi dugu: **ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE**. elkarrekinpodemos@getxo.eus / 688 69 33 36